

## ANDOAINERA BILBOTIK, N1ean BARRENA

- 1.- A8an barrena gatozela, 10. irteeran atera. **(1. ref.)**  
GASTEIZ N-1  
USURBIL N634  
HERNANI GI-232  
IRUÑEA A-15
- 2.- Gasteizko norabidean jarraitu.
- 3.- 447B irteeraren ondoren. **(2. ref)**  
ANDOAIN  
URNIETA GI-131  
Km. 1 baino lehen, **447A irteeran atera. (3. ref)**  
ANDOAIN
- 4.- Bihurgunean bertan, "ITSASMENDI Karabanak"-en parean, ezkerretara egin, SORABILA **(4. ref)** dioen seinaleari jarraituz, eskuinetara BORDA BERRI industrialdea **(5. ref)** utziz.
- 5.- 100 m. baino lehen, ezkerretara aldapa handi bat hartu eta asfaltozko bidezoruaren orde zementuzkoa izango dugu.  
Egurrezko seinale bat dago: USURBIL **(6. ref)**, abereentzako ate bikoitz baten ondoan.
- 6.- Hurrengo sahiesbidean eskuinerantz egin. Kasurik ez egin ezkerretara dagoen SORABILLA seinaleari **(19. ref)**
- 7.- Berehala ezkerretara egiten duen lehenengo bidea hartuko dugu. Gutxigorabehera, 3 km falta zaizkigu.
- 8- **OHAR GARRANTZITSUA:** Aurrerantzean zementuzko bidezoruan ibiliko gara (eta ez harriztintzarrezkoetan eta ezta basoko bideetan ere). Ondoko seinaleak aurkituz joango gara.
  - GARATE, BELKOAIN. Goikaldean, harri baten gainean gezi txuria dauka. Alboan, USURBIL BURUNTZALDEA **(7. ref)** dioen egurrezko seinalea dauka.
  - Errepidearen eskuinaldea KAROBIAren seinalea.
  - Egurrezko seinaleak: BELKOAIN, BIDEA edo PISTA **(8. ref)**.
  - Eskuinaldean baserri bat utziko dugu (malda txiki bat amaitzen den lekuan). Ezkerretara beste karobi bat ikusiko dugu **(9. ref)**. Orduantxe, igo behar dugun aldapa handi bat hasiko da.
  - Ia guztiz igo dugunean, telebista antena baten albotik igaroko gara (horman AHT Ez du margoturik). **(10. ref)**
  - Errepidearen eskuinaldean dagoen eta ANDOAIN **(11. ref)** jartzen duen seinale baten ondotik pasako gara.
  - Berehala ezkerretara egingo dugu; metalezko ate berdea igaro, eta bertatik GARATE baserria ikusiko dugu.